

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, INFORMATZEKO BETEBEHARRA ETA BAIMEN INFORMATUA ONARTZEA,
HAURTXOKOTAKO UDAL ZERBITZUAN PARTE HARTZEKO**

Nik, _____, _____ NAN-zk. dudanak,
_____ (adingabea) interesatuaren aita/ama/tutore naizena.

Talde ahuletako edo egokitzeko behar bereziak dituzten taldeetako kidea: Bai / Ez.
Hala bada, zehaztu zein motakoa:

Arrisku-taldeetan ez egotearen eta arrisku-taldeekin ez bizitzearen erantzukizunpeko adierazpena:

Parte-hartzailea arrisku-taldekoa da honako kasu hauetan:

- Parte-hartzaileak ezin du jardueretan parte hartu COVID-19aren sintomatologiarik badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- Parte-hartzaileak ezin du jardueretan parte hartu kontaktu estuan egon bada (bizikideak, senideak eta COVID-19ak eragindako pertsona baten leku berean egon diren pertsonak, sintomak gutxienez 15 minutuz 2 metro baino gutxiagoko distantzian zituela) edo espazio partekatua izan badu COVID-19k eragindako pertsona batekin pertsonen arteko distantzia gorde gabe, sintomarik izan gabe ere, gutxienez 14 egunez. Epealdi honetan jarraipena egin behar da, gaixotasun-zantzurik agertzen bada ere.
- Parte-hartzaileak jardueran parte hartu ahal izango du, baina ez luke parte hartu behar, baldin eta zaugarria bada edo 60 urtetik gorakoa izateagatik, hipertentsio arteriala, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunoeskasiak diagnostikatuta izateagatik edo haurdun egoteagatik edo aurreko gaixotasun medikoak izateagatik zaugarria den pertsona batekin bizi bada. Parte hartzea erabakitzen badu, jasota utzi beharko du beraren edo senideen arriskua Baimen Informatuan.

- Adierazten dut interesdunak goian aipatutako onarpen-baldintzak betetzen dituela, eta ez dela arrisku-taldekoa.
- Adierazten dut interesduna ez dela bizi arrisku-taldekoa den inorekin, edo, hala bada, bere erantzukizunpean parte hartzen duela jardueran.
- Egunero interesdunaren osasun-egoera eta, hala badagokio, jarduerara ez joatearen arrazoa jakinarazteko konpromisoa hartzen dut (mugikorraren bidez, deituta edo whatsapp bidez, 621219232/686698744).

"KONTINGENTZIA PLANA" dokumentua onartzea. Dokumentu horretan jasotzen dira COVID-19ari aurre egiteko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalak, bai eta jarduera COVID-19ra egokitzeko neurriak eta larrialdi-kasuetan edo kutsatzeko arriskua dagoenean jarduteko protokoloa ere:

- Irakurri eta onartzen ditut "KONTINGENTZIA PLANA" dokumentuan jasotako konpromisoak.
- Adierazten dut jarduera COVID-19ra egokitzeko erakundearen protokoloa jaso eta irakurri dudala (KONTINGENTZIA PLANEAN jaso), eta, beraz, erabat ezagutzen dudala eta bat natorrela proposatzen dituen neurri eta prozedurekin.
- Adierazten dut jaso eta irakurri dudala jardueraren ardura duen erakundearen larrialdi-kasuetan edo kutsatzeko arriskua dagoenean jarduteko protokoloa (KONTINGENTZIA-PLANEAN jaso).

COVID-19ari buruzko Baimen Informatua:

- Adierazten dut, aurreko dokumentuetan jasotako informazioa arretaz jaso eta irakurri ondoren, jabetzen naizela zer-nolako arriskuak dakartzan interesdunarentzat eta harekin bizi direnentzat COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan jardueran parte hartzeak, eta neure erantzukizunpean hartzen duT erabakia.

.....(e)n, 2020ko.....ren.....an

Arduradunaren sinadura